



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

Ergatiboaren erabileran argibide
eskariek duten eragina

Nerea Galdos Urbizu

59-68 or.
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.01.08>



Ergatiboaren erabileran argibide eskariak duten eragina

Galdos Urbizu, Nerea
UPV/EHU, Elebilab ikastaldea
nereagaldosurbizu@gmail.com

Laburpena

Euskararen bada zer bait hiztuni bereziki zaila egiten zaiena: ergatiboaren *-k* atzizkiaren erabilera. Euskararen irakaskuntza eremuan kezka handia sortzen duen gaia da ergatiboarena; hori horrela, lan honetan eskola praktika bat diseinatu eta aurkeztu da ergatibo markaren erabilera sendotzeko. Horretarako beste zenbait hizkuntzaren irakaskuntzan erabilia izan den teknika jarriko da martxan: feedback negatiboaren parte diren argibide eskariak. Era honetan, irakaskuntza praktika honek haurren ergatiboaren erabileran zer nolako eragina duen aztertu eta planteatu diren hainbat aurreikuspen eta hipotesi ikertuko dira. Lortutako emaitzak ondorioztatuz, etorkizuneko gai honi buruzko ikerketen norabidea proposatuko da.

Hitz gakoak: Euskara, ergatibo marka, eskola/irakaskuntza praktika, feedback negatiboa, argibide eskariak.

Abstract

*The Basque language has a special difficulty: the ergativity condition. The issue of the ergative *-k* suffix and its acquisition is a big deal for Basque teachers. Therefore, throughout this paper a teaching practice has been designed and presented in order to work on the use of the ergative morphological marker. It is the method of negative feedback (based on clarification requests) the one that has been chosen for this research, a technique used in other language teaching practices. This way, it will be analysed the effect this negative feedback has in the use of the ergative in early ages. Moreover several hypotheses will be tested and the results obtained will suggest the direction future research may take.*

Key words: Basque language, ergative case marker, teaching practice, negative feedback, clarification requests.

1. Sarrera eta motibazioa

Euskararen ezaugarrietako bat da ergatibotasuna. Ondoren azalduko diren hainbat ikerketak ondorioztatu dutenez euskal ergatibo markaren jabeakunza eta erabilera ez dira beste kasu marka batzuk (absolutiboa esaterako) bezala menperatzen (Barreña, 1994). Gainera, ergatiboaren erabilera izenaren morfologian (kasu markan) zailago hauteman eta erabiltzen da aditzaren morfologian baino (Barreña et al., 2008).

Datu hauek guztiek euskararen irakaskuntzan kezka sorrarazi dute, batez ere euskara hizkuntza ahul bezala (elebidunek konpetentzia gutxien erakusten duten hizkuntza) daukaten hiztunen kasuetan.

Eskolak duen kezka honen aurrean konponbide bat aurkitu nahi zaio ergatiboaren markaren erabilerari. Hori horrela, ikerketa honetan ergatibo marken erabilera sendotzeko ahozko hizkuntzan oinarritutako eskola praktika bat (irakasle jarduera mota bat) ikertzea izango da helburu. Horretarako, beste hizkuntzen irakaskuntzan nahiko landua izan den irakaskuntza praktika bat izango dugu aztergai: feedback negatiboaren teknika. Praktika horren eragina aztertzeko datu-bilketa bat bideratu da eta hau martxan jartzeko pilotaje txiki bat diseinatu da; datu batzuk bildu eta aztertuz praktika honek (feedback negatiboak) ergatiboaren erabileran duen eragina zenbatekoa den ikertzeko asmoz.

2. Ikerketaren helburuak

Ikerketa honen helburua haurren ergatiboaren jabeakuntza eta ergatiboak feedback negatiboarekiko duen sentikortasuna aztertzea da. Hori egiteko ikerketa pilotu bat diseinatu da, datu sasi-espontaneoak bilketa bat eta bertatik ateratzen diren emaitzekin eta ondorioekin etorkizuneko ikerketa bat bideratzeko asmoarekin.

Haurren ergatiboaren erabilera ikertzeko 3-5 urte bitarteko haur elebakar eta elebidunak dauden testuingurua hartuko dugu eszenatokitatzat: Nafarroako herri txiki bateko eskola jarduneko momentu zehatz bat aukeratu dugu: jolastordua (bertan erabiltzen den hizkuntza eskolako hizkuntza izan arren, ez delako gela barruko hizkuntza bezain formala). Herri txiki hau aukeratzeko ez da aparteko hauturik egin; ikertzaileak eskura izan duen ikastetxea izan baita. Ikastetxe honetako jolastordu batzuetan haur hauek gainontzeko haurrekin eta helduekin izaten dituzten interakzioak behatu eta ergatiboa behar duten esaldietan jartzen ez dutenetan feedback negatiboaz baliatuko da ikertzailea. Metodologia hau martxan jarriz honako hau da ikerketa honetan aztertu nahi dena:

- 1- Eskola barruan baina ikasgelatik at jasotzen den feedback negatiboak (argibide eskariak) eraginik ba ote duen haurraren ergatiboaren erabileraren inguruko ondorengo erantzunean (epe laburrean behintzat).
- 2- Feedback-aren eragina haurraren hizkuntzaren aurre-ezagutzekin lotuta dagoen. Hau egia bada feedback negatiboarenganako sentikortasuna ez da berdina izango etxetik euskaldunak eta ez euskaldunak diren haurretan.

3. Ikerketaren muina eta ondorioak

3.1. Marko teorikoa

Zer da ergatibotasuna?

Hizkuntza ergatiboak trataera bera ematen die aditz iragangaitzeko subjektuei eta aditz iragankorreko objektuei (Comrie, 1981). Ergatiboaren fenomeno hau hizkuntza ergatiboan morfologian ez ezik syntaxian ere antzeman daiteke. Hala eta guztiz ere, hizkuntza ergatibo guztietan ez dira ezaugarri berak topatzen; bakoitzak bere berezitasunak ditu (Oyharçabal, 1992). Euskararen ergatibo marka subjektu batzuei gehitzen zaien *-k* bezala identifikatzen dugu hiztunok (hori baino sakonagoa da kontzeptua, hala ere) eta ergatibo marka hori aditz iragankorreko subjektuek eramaten dute. Bestalde, aditz iragangaitzetako subjektu eta objektuek kasu absolutiboa hartzen dute (Barreña, 1994). Hori dela

eta, euskarazko aditz iragankorrek ergatibo markarekin eta aditz iragangaitzek marka absolutiboarekin bat egiten dutela esan daiteke.

Ergatibotasunaren erabilera goiztiarra

Hainbat ikerketa egin da haurren ergatiboaren jabekuntzaren inguruan eta datu interesgarriak bildu dira. Ezeizabarrena eta Larrañagak (1996) M haur elebidunaren ergatiboaren jabekuntzaren garapena azaltzen dute euren ikerketan, eta M-ren elebitasunak jabekuntza honetan duen eragina aztertzen dute. Emaitez erakusten dutenez, M-k ez du zailtasunik euskarako kasu absolutiboarekin; baina, aldiz, ergatiboaren erabilera hutsune batzuk aurkitu dituzte; ergatiboaren kasu marka behar duen kasu batzuetan ez du erabiltzen. Hori horrela, M haurrak ergatiboaren jabekuntza ez du 2;04 adinera arte barneratzen, eta hau gertatzearen eragileetako bat, baina ez bakarra, fonetikoa dela diote ikerlariek. Hala ere, badirudi barneratzeko eta erabiltzeko zailtasun hau ez dela fonetikoa soilik, izan ere *-ak* plural forma fonetikoki ergatiboaren berdina bada ere, ez dute ergatiboa bezainbeste alditan hutsik egiten (Ezeizabarrena eta Larrañaga, 1996).

2;04 adinarekin haurra *-k* atzikia maiztasunez erabiltzen hasten bada ere, ergatiboaren jabekuntza prozesu gradual bat dela azpimarratu behar da; M ez da ohartzen 2;04 adinera arte euskal gramatikak duen ergatibo/absolutibo dikotomiaz, eta behin dikotomia hau presente duenean, gradualki, pausoz pauso, ergatiboaren marka morfologikoa erabiltzen hasiko da ondorengo etapetan. Izan ere, batzuetan esaten badute ere, beste hainbatetan *-k* ergatibo marka behar denetan ez dute erabiltzen. Hori horrela, ergatiboaren jabekuntza prozesu graduala dela ondorioztatzeaz gain, M haurraren datuek erakusten dutenez, aditzaren morfologia zailtasun berezirik gabe jaso badu ere, izenaren morfologiaren kasuan, jabekuntza berantiarra da. M haurraren elebitasunari erreparatuz M-ren aditz sintagmetan gaztelaren eraginik ez dagoela ondorioztatzen da. Hala eta guztiz ere, izen sintagmetan erakusten duen ergatiboaren erabilera ezak (behar duenetan) gaztelarekin izan dezakeela zer ikusia hausnartzen dute. Beste ikerlari batzuek, Barreñak (1994) esaterako, elebitasunak haurren ergatiboaren jabekuntzan eta erabilera eraginik ez duela defendatzen du. Beste aldetik, Austin (2007), ez dator bat Barreñaren ideia horrekin; izan ere, Austin (2007)-en iritziz, elebitasunak (euskara/gaztelera) eragin zuzena du haurraren ergatiboaren jabekuntzan eta honen garapenean. Bere aburuz, haurra ez da elebiduna bi urte izan arte hau da, ez ditu bi kode desberdintzen bere hizkuntza jabekuntzan; baina behin elebiduna denean, haurraren hizkuntza menderatzaileak (elebidunaren hizkuntza nagusi edo indartsuenak) eragina izango du bigarren hizkuntzaren (hizkuntza ahularen) gramatikan. Hori horrela, gaztelera/euskara dituen haur batek, eta batez ere gaztelera hizkuntza nagusizat duen haur batek, euskarak ergatibo marka eskatzen duen kasuetan hau ez esateko joera erakutsiko du (gaztelera ez baita hizkuntza ergatiboa); aldiz, euskaldun elebakarra den haurrak akats gutxiago egingo ditu ergatiboaren kasu markari dagokionez. Hala eta guztiz ere, elebidun eta elebakarren artean desberdintasuna baldin badago ere, Austinek esaten du elebakarren ergatiboaren erabilera ez dela perfektua. Hori dela eta, ergatiboaren jabekuntza kasu bietan (elebakar/elebidun) nahiko berezia eta kritikoa dela defendatzen du Austinek beste euskarako zenbait kasu eta deklinabide markekin alderatuz (Austin, 2007).

Gainera, ikusi da gaztelera ez dela euskararen ergatibo kasu markan eragina duen hizkuntza bakarra. Izan ere, frantses/euskara elebidunekin eta euskal elebakarrekin eginiko ikerketa batean, nahiz eta lagina txikia izan datu kualitatibo hauek bildu dituzte (Duguine, Köpke eta Nespoulous, 2014): lehenik eta behin ikusi dute aldea dagoela hizkuntzaz jabetzeko bi moduen artean (elebakar/elebidun). Elebidunen kasuan bi mota bereizten dira: ondoz ondoko (H1 frantsesa dutenak eta H2 eskolan jasotako euskara) eta aldibereko elebidunak (euskara eta frantsesa momentu berean jaso dituztenak).

Ikerketa honetan ondorioztatu dute euskaldun elebakarrak direla ergatiboa ondoen erabiltzen dutenak; eta 3 urterekin akatsak egiten badituzte ere, 5 urte dituztenean garapen handia ikusten da, ergatibo kasu markak espero diren guztietan edo ia guztietan ekoizten baitituzte. Elebidunei erreparatu, ondoz ondoko elebidunak elebkarretatik hurbilago daudela ikusten da (eta hau ez da espero dena). Aldibereko elebidunen kasuan berriz, 3 urte eta 5 urtetako ekoizpenak ikusi eta elebkarretan ikusten den garapen eta eboluzio hori ez da ikusten; akatsak mantendu egiten dira, eta hobekuntzarik ez da sumatzen.

Honekin lotuta aipatzekoa da, baita Ezeizabarrena, Manterola eta Beloki (2009)ren ikerketan bildutakoa ere. 2-3 haur elebakarrek %30 akats egin zituzten ergatibo markaren inguruan, baina haur berberak 5 urterekin ikertu ondoren, akats horiek zuzendu zituztela konturatu ziren. Aldibereko elebidunen kasuan 2-3 urtetan eginiko akatsak hor jarraitzen dute 5 urterekin ere, ez da hobekuntzarik sumatzen. Beraz, elebakarrek 3-4 urte inguruan ergatiboaren erabilera menderatzen dute eta elebidunen kasuan ezin da horrelakorik esan.

Hori horrela, *-k* ergatibo marka ez esateko joera hori sarriagotan topatzen da haur elebidunen kasuan. Ezeizabarrenak (2012) erakusten du bere ikerketan ergatibo/absolutibo kasuen arteko desberdintasuna oso gaztetan egiten dutela haurrek, 2;00-2;08 adin tartean hurrenez hurren. Adin honetatik aurrera hasten dira txikiak aditzen inflexioez jabetzen, bietan, elebkar eta elebidun kasuetan (Ezeizabarrena, 2012). Aipatu bezala, haurra ez da hasten ergatiboaren kasu marka erabiltzen bi urte inguru izan artean; behin adin horretara iritsita, esan bezala, ergatiboaren jabekuntza prozesu graduala denez, haurrak ez du guztiz bereganatzen 2;06-3;00 urte izan arte. Hau guztia kontuan hartuta, ergatiboaren jabekuntza graduala eta elebkar/elebidunen artean irregularra dela ondoriozta daiteke (Ezeizabarrena, 2012).

Argibide eskariaren erabilera/eragina hizkuntza irakaskuntzan

Haurrak helduengandik jasotzen duen feedback (*feed*: elikatu/ *back*: atzera, bueltatu) esplizitua (positiboa esaterako) edo inplizitua (negatiboa) izan daiteke eta estrategia desberdinak erabili daitezke bata edo bestea helarazteko. *Feedback esplizituan* argibideak esplizituki adieraztean akatsaren zuzenketa modu ireki eta zuzen batean egiten da eta hau burutzeko helduak azalpen meta-linguistikoak ematen ditu. Hona hemen adibide bat (1):

(1) Haurra: Amonak *karamelos* eman dizkit.

Heldua: *Karamelos* gaztelerazko hitza da, *goxokiak* esaten da euskaraz.

Haurra: Ba... amonak *goxokiak* eman dizkit

Feedback esplizituaren presentzia ez da ohikoa izaten lehen hizkuntza jabekuntzaz ari garenean, baina sarriagotan gertatzen dira bigarren hizkuntzari erreparatzen diogunean (Saxton et al., 2005). Feedback *inplizitu* edo *negatiboari* dagokionez, helduak estrategia desberdinak erabiltzen ditu haurra, kasu honetan, akatsa egin duela jabetu dadin. Feedback inplizituaren bidez akatsa ez da zuzenean zuzentzen, zehar zuzenketa bideratzen duten estrategiak erabiltzen dira elkarriketa moztu gabe. Feedback-a inplizituki transmititzeko modu desberdinak daude: errepikapenak, argibide eskaerak, berresate ariketak... Hona hemen adibide bat?

(2) Haurra: Amonak *karamelos* eman dizkit.

Heldua: Amonak zer eman dizula?

Haurra: *Goxokiak/Karamelos*

Aipatu berri den bezala, lehenengo hizkuntzaren inguruko feedback-a erruz ematen da esplizituki; Demetras et al., (1986)-ek aipatu bezala, feedback esplizitua gutxitan suertatzen da testuinguru hauetan eta gertatzen den kasuetan edukiarekin zerikusia duten akatsak zuzentze aldera helarazten da, formaren inguruko akatsak zuzentzeko baino gehiago.

Bestalde feedback inplizitu edo negatiboaren ondorioz, subjektua (kasu honetan haurra) egin berri duen akatsaz jabetzen da eta etorkizuneko ekoizpenean feedback positiboa (esplizitua) edo feedback-ik jaso ez duten horiek baino ekoizpen zuzenagoa egingo du (Podsakoff eta Farth, 1989). Feedback negatiboak haurraren gramatika akatsean zuzenean du eragina, ondorengo (3) adibidean ikusgai, eta haurra egin duen akatsaz jabetzea du helburu; akatsaz konturatze hori hala ere, esplizitua beharrean era inplizituan eginga izan behar duela aholkatzen du, besteak beste, Saxtonek (Saxton, 2000). Honekin lotuta Van-Dijk-ek eta Klugerrek (2001) esaten dutenez, feedback positiboak (esplizituak) feedback negatiboak baino motibazio areagotzeko eragin handiagoa azaltzen du norbanakoak *egin nahi dituen* ariketetan (*task*); bestalde, feedback negatiboa positiboa baino eraginkorragoa da *egin beharrekoak* diren ariketen inguruko motibazioa handitzeko.

Hainbat izan daitezke feedback negatiboa haurrari transmititzeko bideak; lehen aipaturiko estrategiez gain, isiluneak, helduaren intonazio/azentu jolasak eta helduaren aurpegiko espresioak ere izan daitezke feedback negatiboa bultzatzeko estrategiak. Hamaika dira, beraz, feedback negatiboa transmititzeko moduak; hala ere, Saxtonek (2000) argibide eskaeren inguruko apustua egiten du, gehien erabiliak eta eraginkorrenak direla defendatzen baitu. Bere aburuz, feedback negatiboa helarazteko estrategien artean argibide eskariak dira tresnarik fidagarrienak eta indartsuenak. Hemen argibide eskaeren inguruko adibide bat (Saxton, 2000:228).

(3)Child: The pirate hit him on the head.

Adult: What?

Child: That pirate hit him on the head.:

(3)adibidean ikusten da helduak (*adult*) argibide eskari bat egiten diola haurrari (*child*), honek aditzaren iragana *-ed* erantsiz egin baitu. *-ed* ingelesezko iraganeko aditzen marka erregularra bada ere, *hit* (*jo*) aditza irregularra izanik, ez du *-ed* marka eskatzen. Hori horrela *hit* aditzaren iragana *hit* izango litzateke, eta ez *hitte*. Hasierako ekoizpenean haurrak akatsa egin badu ere, helduaren argibide eskariaren ondoren akatsa identifikatu eta zuzendu egin du.

Demetras et al., (1986) ek aipatzen dutenez feedback negatiboa transmititzeko estrategiez baliatuz, haurra egin duen akatsaz konturatu, eta etorkizuneko ekoizpenean akats hori zuzentzeko gai izango da. Hala ere, haurrak akatsen bat egiten duenean, ez du beti akatsa identifikatu, aldatu edo zuzentzen; zuzenketa gerta dadin, haurrak ekoiztu duen akastun estruktura hori bere hizkuntza sisteman (edo gramatika mentalean) izan beharko du; bestela, feedback negatiboak ez du inolako eraginik izango haurraren etorkizuneko ekoizpenean. Saxtonen (2000) aburuz feedback negatiboak haurrari egin duen akatsa identifikatzen eta kasuak kasu, hau zuzentzen lagunduko dio, hori dela eta Saxtonek feedback negatiboaren garrantzia, eta batez ere argibide eskarien (*clarification request*) estrategia azpimarratzen du. Argibide eskaeren eragina azpimarragarria da bi urtetik gorako haurren; adin horretatik aurrera erruz baztertzeko dituzte haurrek argibide eskaera hauek, gehienetan helduak helarazitako eskaera hori errepikatuz edo birformulatuz. Hala eta guztiz ere, haurrak akatsa zuzentzen

duen kasuetan, kontuan hartu behar da zuzenketa horrek denbora-motzeko (*short term*) eragina izan dezakeela. Hau da, posible da momentuan akatsa identifikatu eta zuzentzea, baina etorkizunean berriro akats bera egitea. Feedback negatiboak sorrarazten duen kezka hau *Prompt Hypothesis* kontzeptuarekin azaldu ohi da: hipotesi honek dioenez, feedback negatiboak ekoizpenean akatsa egon delako alarma helarazten dio hiztunari eta batzuetan akats horretaz jabetzera ere lagundu dezake hiztuna, baina kasu gehienetan, ez hori baino gehiago.

3.2. Metodologia

Diseinua

Ikerketa honetan erabilitako metodologia batez ere feedback negatiboan oinarrituko da. Ikusi denez, feedback negatiboari esker, haurra akatsaz jabetu daiteke eta hainbat kasutan baita egin duen akatsa zuzendu ere. Feedback negatiboa erabiltzean, helduak ez dio haurrari zuzenketa modu zuzenean egiten, hainbat baliabideren laguntzaz haurraren ekoizpenean zerbait zuzen ez dagoelako ideia transmitituko dio haurrari era inplizituan (Hittie eta Timperley, 2007). Feedback negatiboa, ikusi denez, hainbat estrategia erabilia helarazi daiteke; ikerketa honetan *argibide eskariak* erabiliko ditu irakasleak haurraren ekoizpenak zuzentze aldera.

Aurreko atalean Saxtonek erabilitako argibide eskariaren antzekoa izango da ikerketa honetako metodologiaren oinarri. Antzekoa bada ere, kasu honetan pausu bat haratago joango gara eta helduak akatsaren aurrean egiten duen galdera ez da Saxtonen “what?” bezain orokorra izango. Ikerketa honek ergatiboaren kasu marka du ardatz eta beraz, haurraren ekoizpenetan horri erreparatuko zaio. Hori horrela, haurrak ergatiboa isiltzen duenean helduak argibide eskariak erabili ditu eta hauen aurrean haurrak zer-nolako erantzuna ematen duen (akatsa identifikatzen duen, zuzentzen duen...) aztertuko da.

Ondorengo hau izango da helduak ikerketa honetan esku hartzeko modua:

(4)Haurra: June makila kendu dit.
Heldua: Nork kendu dizu?
Haurra: June/Junek

(4)adibidean ikus daitekeenez, Saxtonen galdera “what?” hemen erabili dena baino orokorragoa da. Kasu honetan NORK+ *haurrak erabili duen aditz berbera* erabili du helduak haurraren argibidea eskatzeko. Modu honetan haurrak bere ekoizpenean ergatiboaren esaldia zuzentzen duen edo ez ikusiko da eta horren arabera, feedback negatiboak ergatiboarengan duen eragina ere aztertuko da.

Helduak testuinguru honetan gertatzen diren hainbat elkarrizketa behatuko ditu, eta beste hainbatetan parte ere hartuko du. Elkarrizketa hauetan ergatiboa behar denetan isildu egin duela jabetzen denean aipatu dugun feedback negatiboa jarriko du martxan helduak. Jasotzen den guztia helduak eskura izango duen koadernotxo batean bilduko da, ekoizpenaren data, egilea eta deskribapenarekin.

Ikerketa honetako parte-hartzaileak (ondoren sakonduko da honi buruz) Nafarroako herri txiki bateko 3-5 urte bitarteko 31 haur izan dira. Helduaren esku-hartze hau gertatuko den testuingurua larreko ordua (jolastordua) izango da (goizeko 11:00-11:45 bitartean); beraz, testuinguru ez da gela barruko testuinguru formala izango, eskolakoa baina gelatik kanpokoa izango baita bai haurrek/helduek erabiltzen duten hizkuntza, eta baita feedback-a ere. Hori horrela, testuinguru honetan eta familia

euskalduneko eta ez euskaldunekoak diren haurrak parte hartzaile direlarik, feedback-a ergatiboaren erabilerarekin lotuko duen metodologia bat diseinatu da Nafarroako herri txiki bateko eskolako jolastordu garaian martxan jarriko dena. Haurren ezaugarri linguistikoak eta estralinguistikoak kontutan hartuta honako datu hauek biltzea espero da. Alde batetik, haurren ekoizpen akastunetan feedback negatiboak eragina izango duela aurreikusten da; ikusi denez feedback negatiboak baduelako eraginik haurren gramatikan, eta hortaz, baita ergatibo kasu markan ere. Horretaz gain, berresate ariketa honek ergatiboaren ekoizpenean izango duen eragina etxetik euskaldunak eta ez euskaldunak diren haurren artean desberdina izango dela espero da, feedback-aren eragina hizkuntzaren aurre ezagutzekin lotuta dagoela aurreikusten baita. Beraz, akatsa identifikatzeko eta zuzentzeko gaitasuna handiagoa izatea espero da etxetik euskaldunak diren haurren artean.

Prozedura

- Datu bilketa: zentroarekin kontaktatu, ordutegia zehaztu (zein datatan/ordutegitan bilduko diren datuak), haurren/gurasoen baimenak eta onarpen agiriak eskuratu, zenbat sasiotan eta zein data tarterekin egingo den datu bilketa.
 - a) Datak eta ordutegiak
 - b) Zenbat haur aldiko eta zenbat aldiz bakoitza.
 - c) Non kokatu ikertzailea (jolastorduan non, datuak nola bildu) eta zer nolako rola azaldu haurren aurrean.
 - d) Analisirako behar/espero diren itemak zehaztu.
- Datuen analisia: fitxategia prestatu, zenbat item eta zeintzuk izango diren planifikatu eta umeen perfil linguistikoen deskribapena egin: ondoz ondoko elebidunak, aldibereko elebidunak edota elebakarrak diren adierazi.
 - a) Jasotako datuak analisirako prestatu: partehartzaileka kodetu, iraupenak, item kopuruak zenbatu, itemak zerrendatu eta kodetu.
 - b) Datuen analisia: espero ziren eta jaso diren ahozkoak, ekoizpen motak identifikatu eta kuantifikatu (subjektudunak/gabeak, esaldi zuzenak/ez zuzenak, feedbackaren eragina bai/ez).
 - c) Jada eskura ditudan datuetatik ikusi dudana. Nahiz eta lagina txikia izan, hona hemen bildu ditudan datuetako batzuk:

J haurra

(5)J haurra: Nerea, rueda kendu dit Olatz!

Ikertzailea: Nork kendu dizu?

J haurra: Olatz.

(6)J haurra: Nerea! Olatz asmatu du!

Ikertzailea: Nork asmatu du?

J haurra: Olatz.

A haurra

(7)A haurra: Ni nahi dut

Ikertzailea: Nork nahi du?
A haurra:Nik

(8)Txakurra bat kaka egin du
Nork egin du kaka?
Txakurrak

(5) eta (6) adibideak 5 urteko J haurrarenak dira. J haurra etxe edo familia ez euskalduneko haurra da eta ikusten denez, helduak helarazten dion argibide eskariekin ez du akatsa identifikatu eta zuzentzen. Bestalde, A haurrak (3 urte), (7) eta (8) adibideetan ikusten denez, argibide eskarien ondoren bere ekoizpena aldatu eta $-k$ ergatibo marka gehitzen du aurretik egin duen akatsa zuzenduz; eta A haurra etxetik euskalduna da.

Datu hauek ezer ondorioztatzeko gutxi badira ere, esan dezakegu, “etxe euskalduneko haurrek feedback negatiboarenganako sentiberatasuna handiagoa dutela” hipotesiaren aldeko datuak direla hemen erakutsitako hauek.

- Hipotesiak testatu: bildu diren datuen analisia egin ondoren ikerketan azaldu diren aurreikuspenak bete diren edo ez ikusi.
 - a) Feedback-ak eragina izango du bat-bateko erantzunean.
 - b) Eragina desberdina izatea espero da.

Hau testatu ondoren, emaitzen azalpen teorikoa garatu eta hausnarketa egin: lortutako emaitzek eta ondorioek zertan/nola lagundu dezakete irakaskuntzak ergatiboren kasu markarekiko duen kezkan.

4. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Pilotaje hau egiteko, beraz, lagin txiki bat erabiltzea bildu eta aztertuko da. Lagin horretako datuak aztertuz, eta hipotesiak testatuz, etorkizuneko ikerketaren noranzkoa zehaztuko da. Pilotaje txiki honek korrelazio argirik erakusten badu (partehartzaile mota eta feedbackarekiko sentikortasunaren artean, esaterako), lagin handiago batekin ikergai hauek sakonago aztertzea da helburu. Etorkizuneko ikerketan, beraz, kontutan hartuko da pilotaje honekin ikasi dena eta espero ziren datuak eta bildu direnak kontrastatuko dira (bai kopuruz eta baita kalitatez ere). Honetaz gain, euskal irakaskuntza praktika hau beste ingurune soziolinguistiko batean/batzuetan egitea interesgarria izango litzatekeela uste da. Izan ere, aurreikusten da zenbat eta ingurune euskaldunagoa izan, feedbackarekiko sentiberatasuna handiagoa izango dela. Bi hipotesi daude, beraz, etorkizunean testatzeko: ingurune soziolinguistikoak eragina duela feedbackaren sentiberatasunean eta etxeko hizkuntza garrantzitsua dela, baina baita familia bizi den lekuko testuingurua ere.

Euskararen eta honen ergatiboaren erabileraren inguruan asko dago ikasteko oraindik, beraz, pilotaje txiki honek noranzko hori pixka bat argitzea espero da.

5. Erreferentziak

- Austin, J. (2007). Grammatical interference and the acquisition of ergative case in bilingual children learning Basque and Spanish. *Bilingualism: Language and Cognition*, 10(3), 315-331. doi:10.1017/S1366728907003094
- Barreña, A. (1994). Sobre la adquisición de la categoría funcional COMP por niños vascos. In *La adquisición del Vasco y del Castellano en niños bilingües*, Jürgen M. Meisel (ed.), 231-283. Frankfurt am Main: Vervuert.
- Barreña, A., Ezeizabarrena, M.J., García, I. (2008). Entzundako hizkuntzaren eragina haur euskaldun txikien gramatika-garapenean. *ASJU*, 51, 106-127.
- Comrie, B. (1981). Language Universals and Linguistic Typology. *Syntax and Morphology*. Oxford: Blackwell.
- Demetras, M., Post, K., & Snow, C. (1986). Feedback to first language learners: The role of repetitions and clarification questions. *Journal of Child Language*, 13(2), 275-292. doi:10.1017/S0305000900008059
- Duguine, I., Köpke, B., eta Nespoulous, J.L. (2014). Variations dans l'acquisition du marqueur ergatif en basque par des enfants bilingues basque-français. *Language, Interaction and acquisition*, 5:2(2014), 227-251.
- Ezeizabarrena, M.J., and Larrañaga, M.P. (1996). Ergativity in Basque: a problem for language acquisition?. *Linguistics*, 34, 955-991.
- Ezeizabarrena, M.J., Manterola, I., & Beloki, L. (2009). Euskara H2 goiztiarraren ezaugarrien bila: adizkiak eta gramatika kasuak haurren ipuin kontaketa. *Euskera*, 54(2-1), 639-681.
- Ezeizabarrena, M.J. (2012). The (in)consistent ergative marking in early Basque: L1vs. child L2. *Lingua*. 122(2012), 303-317.
- Hattie, J., eta Timperley, H. (2007). The Power of Feedback. *Review of educational Research*, 77(1), 81-112. Doi: 10.3102/003465430298487
- Oyharçabal, B. (1992). Structural case and inherent case marking: ergaccusativity in Basque. In *Syntactic Theory and Basque Syntax*, Joseba Lakarra eta Jon Ortiz de Urbina (eds.), 309-342. Donostia: Diputación Foral de Guipúzcoa.
- Podsakoff, P. M. eta Farh, J. L. (1989). Effects of feedback sign and credibility on goal setting and task performance. *Organizational Behavior and Human Decision Processes*, 44, 45-67.
- Saxton, M. (2000). Negative Evidence and Negative Feedback: Immediate Effects on the Grammaticality of Child Speech. *First Language*, 20(2000), 221-252.

Saxton, M., Houston-Price, C., & Dawson, N. (2005). The prompt hypothesis: Clarification requests as corrective input for grammatical errors. *Applied Psycholinguistics*, 26(3), 393-414. doi:10.1017/S0142716405050228

Van-Dijk, D. eta Kluger, A. N. (2001). *Goal orientation versus self-regulation: Different labels or different constructs?* 16th annual convention of the Society for Industrial and Organizational Psychology, San Diego, CA.